

# Ijitoen ondarearen balioespena turismo etnokulturalaren bidez

Anne Marie Mamontoff

Irakasle katedraduna Perpinyako Unibertsitatean

Itzultzailea: Miren Ibarluzea

Historian zehar garatutako kultura-ondare ez-material (KOEM) aberatsaren eramaile dira munduan ijitoak, eta ondare hori bat dator, gutxiengo komunitateak babesteko esparruaren baitan, UNESCOk ezarritako irizpidetara. Turismoaren profesionalen egindako lehendabiziko inkestan egiaztatu dugu ijitoak deskodetzeko haiei buruzko estereotipoak baliatzen direla (marjinalak dira, arriskutsuak, letratu gabeak, etab.). Nolanahi den ere, estereotipo positiboak ere badaude (musikariak dira, artistak, artisauak, etab.). Ijitoen lorpen positibo horietatik abiatuta, beste inkesta bat egin dugu etorkizuneko turismo-profesionalen artean, tokiko turismoaren bideragarritasunari buruzko iritzia jasotzeko. Adoretu egiten gaituzte erantzunek, ezen, profesional horien arabera, ijitoen KOEMak, turismo etnokultural gisa, bisitariak erakar baititzake. Kontzeptuen esparrua KOEM, turismo etnokulturala eta gizarte-mailakatzea kontzeptuetan ardaztu dugu, eta prozedurari dagokionez, gurutzatutako metodologian oinarritu dugu: analisi soziohistorikoa, hiru erantzuneko jarrera-eskala eta ordezkapen-galdetegi itxia.

GAKO-HITZAK: Gutxiengo ijitoak · Kultura-ondare ez-materiala · Etnoturismoa · Estereotipoak · Gizarte-mailakatzea.

## The assessment of gipsy's heritage by means of ethno-cultural tourism

Gypsies bear rich intangible cultural heritage (ICH) all over the world. They have developed that heritage through the history, and it fits with the guidelines established by UNESCO for the minorities' safeguarding framework. In the first questionnaire performed among tourism professionals, we have confirmed that gypsies are always decoded by stereotypes affecting them (they are marginal, dangerous, uneducated, etc.). Nevertheless, they are also decrypted by positive stereotypes (they are musicians, artists, artisans, etc.). Those positive achievements have been the departure for our second questionnaire, performed among future tourism professionals aiming to know their opinions on the viability of autochthon tourism. The results of the inquiry have been encouraging: as far as the future professionals are concerned, gipsy intangible cultural heritage can draw visitors by means of ethno-cultural tourism. Our conceptual framework sets on these three concepts: intangible cultural heritage, ethno-cultural tourism and social categorisation. As for the procedure, a crossing methodology has been used: socio-historical analysis, a three answer scale of attitudes and a closed substitution-questionnaire.

KEY WORDS: Gipsy minorities · Intangible cultural heritage · Ethno-tourism · Stereotype · Social categorisation.

*Jasotze-data: 2013-07-12. Onartze-data: 2013-11-18.*

UNESCO erakundeak zabaldu egin du kultura-ondarearen (KO) tradiziozko definizioa: errealitate fisikoa izatetik kultura-ondare ez-material (KOEM) izatera igaro da. Komunitateen gizarte-praktikez, errepresentazioez, jakintzez eta jardun-bideez ari da. Aipatutako eboluzioa kultura-berezitasunak aintzatestearen adierazgarri da, eta ahalbidetu egiten du globalizazioak zein politika bateratzaileek arriskuan jarritako tokiko identitateak gordetzea. Gutxiengo ijitoak KOEM garrantzitsua eramaile dira, eta horren lekuko dira mundu zabalean ikus daitezkeen musika-, dantza- eta kantu-adierazpenak, erritualak, dialektoak eta artisaugintza-jarduera anizkoitzak. Sedentarizazioak eta industrializazioak eraginda, jarduera nomada tradizional horietako asko desagertu egin dira edo desagertzeko bidean daude; galera ekonomiko nabarmena dira, baina batez ere, identitate-galera nabarmena. UNESCOk ijitoen kultura-ondare ez-materiala aintzatezteak dagokigun populazioaren ondare-onespena lekarke. Hala ere, aurreko ikerketetan erakutsi dugunez, ondare ez-materiala izendatzeko UNESCOren deialdietan, hautagaitza-gabedia dago ijitoen aldetik. Aurrekoaren arrazoa hauxe da: gutxietsita (estigmatizaturik) daudelako sentimendua dute taldeok, eta ez dira gizarteak baloratutako domeinuetan engaiatzen; izan ere, porrotaren beldur dira, bai eta haiei buruzko estereotipazioa egiaztatzearen beldur ere (Mamontoff, 2010, 2011).

Hainbat eragile profesionalekin, batez ere turismoaren sektorekoekin, egindako ikerketaren emaitzek baieztatu egiten dituzte ijitoen inguruan ezagun diren estereotipoak. Guztiarekin ere, klitxe batzuk positiboak dira, ijito taldeentzako irtenbide alternatiboak proposatzea ahalbidetzen duten heinean. Aurrekoa oinarritzat hartuta, hauxe da gakoa: aipagai diren komunitateak turismo etnokulturala garatzera bultzatzea, mugaz haraindiko ijitoen behatokiaren esparruaren baitan (Mamontoff, 2010). Artikulu honetako lehenbiziko zatian kontzeptuen definizioetan eta metodoan jarriko dugu arreta; bigarren zatian, ostera, emaitzak, ondorioak eta etorkizunerako aukerak azalduko ditugu.

## I. Teoria eta metodoak

Lan honek ondoko hiru noziook ditu oinarri: kultura-ondare ez-materiala, turismo etnokulturala eta gizarte-mailakatzea. Prozeduran zehazten ditu ikerketarako tresnak eta laginak.

### A. Kultura-ondare ez-materiala: UNESCOren aitorten-irizpideak

«Ondare» terminoaren erabilera XII. mendekoa da. Garai hartan, ondarea «familiaren ondasun» gisa ulertzen zen; bestela esanda, *pater familias* izenekoari zegozkion ondasun pribatuen multzo gisa. Zentzu primitibo horrek, edonola ere, bere horretan iraun du, terminoak oraindik ere izendatzen baititu «modu pertsonalean oinordetzan jasotako ondasun konkretuak». Era berean, «identitate kolektiboa sortzeko hainbat mailatan sistema sinboliko gisa funtzionatzen duen ondare nagusia: obrak, monumentuak, aurkintzak eta abar» (Di Méo, 2008: 1) ere izendatzen du terminoak. Lekuez eurez baino gehiago, gizartearen memoriak osatutako ondareaz zein gertaerei eta praktikei lotutako balioez jardutea da gakoa. Gisa horretako ondarea babesteko asmoz, UNESCOk nazioarteko aitortpena sortu zuen 1999an, eta, modu horretan, kultura-ondarearen tradiziozko definizioa (errealitate fisikoak: aurkintza geografikoak, arkeologikoak, natura-parkeak eta

natura-aurkintzak) *de facto* hedatu eta kultura-ondare ez-material izatera igaro zen. Funtsa ondokoa da: politika bateratzaileen mehatxupean dauden gutxiengo edo/eta tokiko identitate estigmatizatuaren berezko ohituren eta balioen unibertsoa babestea. Zentzu horretan, itun irmo bat idatzi zen 2013an. Eta, arian-arian, etengabe, KOEMaren alorra osatzen duten aurkintzak eta objektuak ugaritu izanaren lekuko izan gara; halaber, ikusi dugu UNESCOk gero eta interes nabarmenagoa azaltzen duela talde-identitatearen eta erkidego-aniztasunaren iturri den KOEMaren alde. Ongi bidean, KOEMa «munduko ondarearen zerrendan sar liteke, kultura-ondarearen edo natura-ondarearen baldintza beretan» (Origet du Cluzeau, 2004: 24).

Hogeita hamar urteko gogoetaren eta negozioazioaren ondoren, UNESCO osatzen duten herrialde kideak ondoko defizioa onartzera iritsi dira:

«Kultura-ondare ez-material» gisa ulertzen dira komunitateek, taldeek eta, kasuan kasu, norbanakoek euren kultura-ondarearen parte gisa aintzatetsitako praktikak, errepresentazioak, adierazpideak, jakintzak eta jardunbideak, haiei lotzen zaizkien tresnez, objektuez, gailuez eta kultura-espazioez gain. Belaunaldiz belaunaldi transmititutako kultura-ondare ez-materiala etengabe birsortzen dute komunitateek eta taldeek, ingurunearen arabera, naturarekiko interakzioaren arabera eta historiaren arabera; bestalde, identitate- eta jarraitutasun-sentimendua eskurazten die eta, era berean, kultura-aniztasunaren eta gizakien sormenaren errespetua sustarazten da (*ibid.*: 109).

2003ko itunaren arabera, ondarea KOEM aitopenearekin sailkatzeak berekin dakar ondoko taldeotako batean azaltzea: *ahozko tradizioak eta adierazpideak (hizkuntzak barne), ikuskizun-arteak (musika, dantza eta tradiziozko teatroa), gizarte-jarduerak, errituak eta ospakizunak, naturari eta unibertsoari dagozkien jakintzak eta jarduerak zein tradiziozko artisau-gintzari lotutako jardunbideak*. Hala ere, gutxi dira domeinu bakarrean koka daitezkeen KOEMaren osagaiak. Adibidez, jaialdietan, ahozko tradiziozko adierazpideak, gastronomia, dantza, kantua eta teatroa agertzen zaizkigu era batera; xamanen errituetan nahastu egiten dira otoitz-kantuak, objektu sakratuak, jantziak, zeremoniak eta erritualak. Horri guztiari gehitu behar zaio arlo horien arteko mugak komunitateek eurek definitzen dituztela. Mugen definizioa ezin da kanpotik etorri. Hala, talde jakin batek teatro gisa sailka dezake adierazpide jakin bat, taldetik kanpokoek dantzatzat jotzen duten artean. Ongi bidean, pentsatzekoa litzateke UNESCOk arestian emandako arloen zerrenda osatzea, eta azpikategoriak gehitzea; adibidez, ohitura kulinarioak, erromesaldiak eta abar. Kasu guztietan, gutxiengo kulturalak gordetzeko beharrari erantzuten dio definizioak, une oro baitaude globalizazioak, politika bateratzaileak, Europako mugikortasunak, ingurumenaren narriadurak eta turismoaren garapenak mehatxaturik. Haatik, zein dira irizpide uneskiarrak aplikatzeko modalitate konkretuak? 2001., 2003. eta 2005. urteetan ondare ez-material gisa sailkatutako 90 «obra nagusiek» argitzen dutenez (ikus UNESCOren webgunea), argi eta garbi ematen du, hainbat arlotan kokatutako adierazpideak era batekoak edo bestekoak izan, UNESCOrentzat garrantzitsuena adierazpideen funtzio soziala gordetzea dela.

Itunaren arabera, *tradizioak, ahozko adierazpideak eta hizkuntzak* atalean forma-aniztasun handia dago: *ipuinak, haur-kantak, kondairak, esamoldeak,*

*igarkizunak, kantak, mitoak, poema epikoak, otoitzak, sorginkeriak, salmodiak, antzezlanak*, etab. Adibidez, euskarak ahalbidetu egiten du Euskal Herria existitzea, horrek gizarte-memoriari dakarzkion inplikazio guztiekin (Laborde, 1997): «Hala, kultura-jarduera jakin bat “euskal” izenlagunarekin izendatzeak (pastela, pilota, musika, sindikalismoa) jardueraren beraren izatea sortzen du» (*ibid.*); euskarak egiazkotu egiten ditu jarduerok. Ahozko adierazpideen eta tradizioen alorreko beste adibide esanguratsu bat da, esaterako, Olonkho delakoa (jakuterazko epopeia heroikoa, Errusiar Federakundea), jakutiarren ahozko historia, ohiturak, sinesteak eta praktika xamanikoak biltzen dituena.

Era berean, *ikuskizun-arteak* arloa ere jasotzen du itunak. Horren baitakoak dira, funtsean, *musika, dantza eta tradiziozko teatroa*. Askotariko kultura-adierazpideekin batera agertzen da musika, aldi berean; esaterako, jai-ikuskizunekin, erritualekin, hiletan eta bestelakoekin batera. Forma sakratuak zein profanoak izan daitezke, goi-mailakoak zein herrikoiak. Era horretakoa da, esaterako, Mugham azerbaijandarra, Azerbaijaneko musika klasikoa irudikatzeaz gain, herrialde horretako zurrunbilo historikoak agertzen dituena.

Itunaren baitakoak dira, halaber, *gizarte-jarduerak, errituak eta ospakizunak*: talde-bizimodua egituratzen duten eta nortasunaren markatzaileak diren adierazpideak. Historian zizelkatuta eta gizarte-errepresentazioetan kristalizatuta daudenez gero, memoria kolektiboaren parte dira. Komunitateetako bizimodueta askotariko gertakizunekin daude lotuta, eta forma ugarietan adierazten dira: jaiotza-, ezkontza- edo heriotza-ohikuneetan eta abarretan. Publikoak nahiz pribatuak izan daitezke, eta horrexek egiten ditu, hain zuzen ere, adierazpideetako batzuk iristezin. Adibide adierazgarria da Boliviako Oruroko karnabala. Ikuskizun, dantza eta kantu anitzek osatzen dute, eta janzkera bereziak, maskarak eta errol-joko jakinak lotzen zaizkio. Artisauentza tradizionalari dagozkion arloek jardunbide jakinak eskatzen dituzte, eta hamaika itxurako pertsonaien fabrikazioan zein askotariko materialen erabileran agertzen dira. Beraz, gizarte-nortasuna azaltzen duten hainbat arteformaren eta signifikazioen bidez adierazten da artisauentza tradizionala. Turismo autoktonoa, hurrengo atalean sakonduko duguna, ondare ez-materiala balioesteko bideetako bat da.

## **B. Turismo etnokulturalaren esanahia**

Turismoa egiteko modu honek erreferentzia egiten die kultura-ondarea (izan fisikoa edo ukiezina) argitara ekartzeko asmoz egiten diren turismo-jarduerari (betiere tokiko jendea izanik eragile nagusia). Sinonimo gisa har daitezke turismo indigena eta turismo autoktonoa ere. «Etnologia» terminoaren jatorria grekerako *ethnos* hitzean dago, eta «herria» izendatzen du. Etnologiaren helburua gizarteak aztertzea da, euren kultura-, hizkuntza-, ohitura- eta erlijio-bereizgarriak kontuan hartuta. «Autoktono» terminoak sorterrian bizi den norbanakoa izendatzen du. Hitz horren sinonimo dira, halaber, «aborigena» eta «indigena». Horra hor, beraz, turismo mota horren esanahia. Nolanahi den, guk geuk «etnoturismo» terminoa hobesten dugu. Izatez, turismo etnokultural kontzeptua bera erredundantea dela deritzogu, etnologia herrien kulturaren azterketari aplikatzen zaion neurrian. Etnoturismoak, hortaz, erreferentzia zuzena egiten dio turismo jakin bati, zentzu kulturalan ulertutako gizarte-taldeen aberastasunak agertzea helburu duen horri.

Aberastasun eta berezitasunok ondare ukigarria (parkeak, museoak, eraikuntza...) zein ukiezina (tradizioak, errepresentazioak, kondairak...) izan daitezke. Dagokigun turismo motak beste mundu batzuk deskubritzeko aukera ematen dio bidaiariari, eta ingurune-aldaketa, exotismoa, aurkikuntza berriak eta autentizitatea dakartzkio. Etnoturismoa oso gutxi garatu da Europan, baina arrakasta handia izan du Kanadan, Australian eta Ipar Amerikan. Kultura- eta geografia-aniztasun izugarri handia dutenez gero, aipatutako eremuetan ondo egokitu dira aipagai ditugun praktikak martxan jartzera. Turismo autoktonoak aukera zabala ematen die bisitariari: herri, museo zein asaben espazioak bisitatzea, artisaugintza ezagutzea, jaietan eta kultura-ospakizunetan parte hartzea (Blangy, McGinley eta Harvey Lemelin, 2010). Turismo autoktonoak zuzenean inplikatzeko dituen indigenak, euren kontrolatzen dutelako turismoa, zatika edo osotasunean, eta euren kultura delako ikuskizun (Butler eta Hinch, 2007). Bisitariak erakartzen dituen molde horretako hainbat eskaintza turistikoko zerrenda ditzakegu: Australia iparraldeko *Tjapukai* kultura-parke autoktonoan, esaterako, *djabugay* kultura eskaintzen zaio turismoari, historiaren, dantzaren, arte-galeriaren eta museoaren bitartez. Quebecetik oso gertu dagoen amerindiarren herrian, bestalde, bisitariak *huronne-wendat* gisako «etxe luze» tradizional batean har dezake ostatu, murgiltze-egonaldia egin eta *wendake* kulturaren tradizioa eta konforta biziz. Beste adibide bat dugu Kanadako Nunavik parke nazionalen bisita, *inuit* kultura ezagutzeko parada ematen duena. Azkenik, Frantziako adibide bat: Bordeleko ijito-familia bisitatzea, zirko-artearen inguruko ikuskizuna eskaintzen duena. Ikuskizunaren ostean, nahi duena bil daiteke ijitoen komunitatera, ardo bero baten inguruan solastera.

Turismo mota horrek lotura zuzena du KOEMa definitzean UNESCOk agertzen duen asmoarekin. Arestian ikusi dugunez, kultura-ondare ez-materialaren sorrera identitate minoritarioak babesteko asmoari dagokio. Begien bistakoa da, hortaz, etnoturismoak bat egiten duela asmo uneskiarrekin. Hala ere, lehenbiziko begi-bistakoan erakargarria den turismo horrek talka egiten du hainbat auzi garrantzitsurekin: dagokion komunitatearen intimitatearekin (zer erakuts dakioko bisitariari?), kolektiboaren barrenean eskulan kualifikaturik ez izatearekin, autoktonoek enpresa turistikokoaren ardura zatikakoa edo osoa izatearekin (Martin, 2012), zerbitzuen kalitatearekin. Izan ere, turismo-eskaintzaren aurrean leihakor izan beharra dago, eta komunitatearen beraren barnealdetik turismo mota horri buruzko begiruneari kasu egin behar zaio (Joliet, 2012). Labur esanik, jarduera horiek turismoari eskaintzea begien bistakoa izateko urrutiko dago. Gure iritziz, etnoturismoaren interes nagusia gizarte-taldeen nortasun bereziak gordetzean datza, komunitatearen interes ekonomikoetatik harago. Horixe baieztatzen dugu, hain zuzen ere, inuitenean: «Kanada iparraldean sortutako hainbat parketako adibideek erakusten dutenez, garapen ekonomikoa sustatzeko bide gisa baino gehiago, inuit-kultura kultura globalean inskribatzeko tresna gisa hautematen da turistak jasotzeko desioa (Martin, 2012: 4).

Azkenik, esan beharrekoa da informatika- eta komunikazio-teknologiaren arabera garatu dela, oro har, turismoa. Teknologia horiek turismoan erabiltzeari buruz, oso argigarriak dira Descamps-Vila, Casas, Conesa, Pérez-Navarro eta Gutiérrezen lanak (2011). Argi azaltzen dute IKTek erraztu egiten dutela turismoa: Interneten bidez, sare sozialen bidez, GPS gisako gidatze-dispositiboaren bidez, edo doako

informazio geografikoaren bidez. Honako honen inguruan dihardute: «nola aurkeztu informazio turistikoa ibilbideak sortzen dituzten programek modu errazean interpreta dezaten» (*ibid.*). Edo, bestela esanda, horrela posible litzateke ibilbide turistikoak sortzea eta kontsumitzaileei puntu zehatzen inguruko datu egokiak ematea. Bide hori berori aplikatu dakioke turismo etnokulturalari, gutxiengo taldeak, ijitoak nabarmenki, IKTen erabiltzaile direla jakinik.

Hurrengo atalean argituko dugu gizarte-psikologia kontzeptua zer den, eta, horrekin, maleruski, ezin daiteke ekonomiarik egin, gizarte-mailakatzeari dagokion kontzeptua baita.

### **C. Taldeen gizarte-mailakatea eta diskriminazioa**

Gizarte-psikologian ezagun da norbanakoek ingurunea modu «ekonomiko»an ulertzeko darabilten mailakate-prozesu mentala. Izan ere, taldeek informazioa sinplifikatzeko joera dute, batez ere objektuen zatikate- eta sailkapen-prozesuaren bidez. Pertsonak sailkatzeaz ari garenean, gizarte-mailakatea esaten zaio kategoriak sortzeari. Kasu horretan, mailatan «ordenatzen» ditugu pertsonak, ezaugarri baten edo gehiagoren arabera. «Ingurua zatikatea ez da ausazkoa: maila jakin bat esleitzeko irizpide nagusia ebaluazio-ezberdintasunetan datza. Gizarte-ari dagozkion mailakate-sistemetan balioek duten errola nabarmendu du Taifelek. Haren ustez, mailakatearen genesisia [...] balioetan oinarrituta artikulatzen da, eta gizarte-mailak, hortaz, sendoagoak dira; oinarrian dauden balioak baino sendoagoak, alegia» (Vinsonneau, 1999: 197). Halaber, mailakateak distortsioak dakartza, edo pertzepzio-ikuspegiak, batez ere azentuazioaren bidezko ikuspegia, Taifelek eta Wilkesek agerrarazten dutena (1975). Honako honetan datza: kategoria ezberdin bitan kokatutako elementu bi errealtatean diren baino ezberdinago balira bezala hautematea. Logika berari jarraituta, maila bereko kideak elkarren artean benetan diren baino berdintsuago ikusteko joera dago (Sales-Wuillemin, 2006).

Rosch, Mervis, Gray, Johnson eta Boyez-Bream (1976) ikertzaileen mailen organizazioari buruzko lanek, gizarte-taldeen ikerketara aplikatuta, bide berri bat ireki dute, eta azpimarratu egiten dute estereotipoen araberako taldeen pertzepzioa. Estereotipoak bat datoz informazio-klitxeekin. Partaidetza-talde anitzetako kideei egozten zaizkie, modu kontsentsuatu eta zurrunean (Vinsonneau, 2002). Norbanakoek eraikitzen dituzten mailak ez dira hutsune sozialean gertatzen. Botere-hierarkia eta botere-harremanetan dautza, eta horren eragina taldeei «maila» estatusa esleitzea da. Bestela esanda, gizartearen arabera, talde gailen batek behe-mailako estatusa esleitzen diezaioke beste talde bati. Hala, historian zehar, komunitate jakin batzuk etiketatatik edo estereotipoetatik abiatuta sailkatu eta barneratu izan dira unibertso mentalean: azal beltzekoen komunitateak, ijitoak, adimen gutxiak, emakumeak... Mailen *nagusitasuna* edo *gutxiagotasuna* aurrez emana dator.

Gizarteek horrelaxe darabiltzate mailakateak, modu sistematikoan. Mailakate horren baitan, talde bat, maila bat, besteak baino askoz gorago hautematen da

gizartean. Estatu Batuetan azal beltzekoak azal zurikoak baino adimen-gaitasun gutxiagokotzat dituzte. Era berean, uste da gizarte-egoera ahuleko inguruetan bizi diren norbanakoek jarduera intelektualetarako motibazio gutxiago izaten dutela, eta horixe da, hain zuzen ere, ijitoen kasua (Mamontoff, 2010). Estereotipoak zabal dabilta gizartean, eta memoria kolektiboak gidatzen ditu, oro har, egiazko errealitateak bailiran. Beste hitz batzuekin esateko, jendeak juzguen araberako ezaugarri jakinak egozten dizkie talde jakinei, euren izaerari ez badatxezkie ere. Hainbat ikerketak erakusten dutenez, gizonen lotzen zaizkien ezaugarriak eta emakumeen lotzen zaizkienak oso bestelakoak dira. Fernberger (1948) ikertzaileak nabarmentzen duenez, gizonak emakumeak baino zuhurragoak direla uste da. Wardek eta Blazwick (1978) argitzen dutenez, gizonari arrazoibide abstrakturako nagusitasuna egotzi ohi zaio, izan logikari dagokionez, izan arrazionalitateari dagokionez. Mailen arteko egozpen-ezberdintasunek modu erregularrean agertzeko joera dute, edozein delarik norbanakoen adina, erlijioa edo kidetza-taldea (Vinsonneau, 1999).

#### **D. Turismo-eragileei egindako inkestak**

Ijitoen KOEMari eta etnoturismoari profesionalen ikuspegitik begiratzeko plan-teamendu kualitatibo eta kuantitatiboa onartzen dituen metodologia-gurutza-mendua darabilgu ikerketa honetan.

*Literaturaren azterketak* KOEM eta turismo etnokultural nozioak ulertzea eta definitzea ahalbidetzen du. Eta *ijitoen kulturaren soziohistoriak* populazio jakin horrengan KOEM berezia badela argitzen digu. *Jarrera-eskala* bat sortu dugu, 15 itemek osatzen dutena, eta item bakoitzerako hiru erantzun-aukera ematen dituena. Ijitoak gizartean ez integratzearen arrazoiei buruzkoak agertzen dira lehendabizi (9 item). Ondoren, ijitoen lorpenei buruzkoak datoz, integrazioa ahalbidetu dutenei buruzkoak (6 item). Eskala hau eraikitzeke ordezkapen-galdetegiaren ereduari jarraitu diogu. Ordezkapen-formulazio molde horrek bere alde du ez zaiola inkestatuari galdera zuzenik egiten, eta ez dagoela posizionatzera derrigorturik. Beste norbaiten lekuan jarrita erantzuteko moduan erakita dago inkesta: «Zure ustez, ijitoak ez dira integratzen gainerakoek adrengabetzat dituztelako?». Modu horretan, handitu egiten da erantzunaren egiazkotasuna, gisa horretako galderek erreferentzia egiten diotelako etnia jakin bati, eta arrazistatzat hartzeko ikara izan dezakeelako inkestatuak. Gure lagina 80 subjektuk osatzen dute, turismoaren esparruan lan egiten duten edo lan egin izan duten gizonen eta emakumeen (tokiko eragileak, bidaiaria-agentzietako profesionalak, kanpinetako animazioetako arduradunak, gerenteak, hoteletako managerrak...). Azkenik, *ordezkapen-galdetegi itxia* dator (bai/ez motako aukera bakarreko galderak), 6 itemek osatua. Item horietan balizko turistak erakartzeko egonaldi etnokulturalak proposatzen dira ijitoen komunitateetan. Turismo etnokulturalaren ezaugarriak gogorarazten dituen testu labur batek egiten dio sarrera inkestari. Azken atal horretako lagina turismoaren etorkizuneko profesionalak osatzen dute, batez ere Perpinyako Turismo Fakultateko ikasleek; 80 dira orotara subjektuak (Ikuskizunetarako eta hiri-ingurunerako turismo-aferrak lizentziako 3. mailako ikasleak, eta Turismoa masterreko 1. eta 2. mailakoak).

## II. Ijitoen ondare ez-materiala eta turismoaren esparruko profesionalen estereotipoak

Soziohistoriaren argitan, badirudi ijitoak KOEM aberatsaren eroale direla. Lehenbiziko inkestaren emaitzek ondo adierazten dute ijitoak nola «sailkatzen» dituzten kategoriatan zehatzetan ijitoak ez direnek, ikuspegi oso estereotipatuak (positiboak eta negatiboak) baliatuta. Bigarren inkestak, ostera, ijitoenean etnoturismoa garatzeko aurreikuspenen inguruan profesionalen ikuspegia ezagutzeari ahalbidetzen du.

### A. Ijitoen KOEMaren funtsa, soziohistoriaren arabera

Gutxiengo ijitoen kulturaren soziohistoriak agerrarazi egiten du badagoela UNESCOren sailkapen-irizpideekin bat datorren ondare bat. Ondare horren baitakoak dira komunitateen hizkuntzak, tradizioak, ahozko tradizioko adierazpideak eta ijitoen ikuskizunetarako arte espezifikoak, bai eta erritualak, ospakizunak eta artisau-gintza ere.

#### 1. Komunitateen hizkuntzak, tradizioak eta ahozko tradizioko adierazpideak

*Tradizioen eta ahozko adierazpideen* esparruan, arreta berezia egin behar zaie hizkuntzei. Ahozkotasunak markatzen du ijitoen kultura, eta hainbat testuinguru soziolinguistikoren emaitza da. Aurrekoaren arrazoia haien nortasuna definitzen duen funtsezko balio hauxe da: mugikortasuna.

Ijitoen hizkuntzak, *romani sib* izenekoak, jatorri indiarra du (haren elementuak gordetzen ditu). Hainbat dialekto sortuta eboluzionatu du hizkuntzak. «Hiztunen neurri handiagoko edo txikiagoko mugikortasuna kontuan hartuta, ezin daiteke dialektoen banaketa geografiko hertsirik proposatu. Hala ere, hamar dialekto talde bereiz daitezke: balkanikoa, karpatikoa, errusiar-poloniarra, finlandiarra, ukrainiarra, kalderari-lóvari edo vlax delakoa, sinto-manoutxea, anglo-romania eta ibero-romania edo calos delakoa» (Reyniers, 1998: 92). Berriki, hiru dialekto-kategoriari sailkatu dira ijitoen dialektoak. Lehenengo kategoriari dagozkio hasiera bateko migrazioetatik zetozen ijitoen dialektoak. Bigarren kategoriatan Balkanetan sortu zen. Hirugarrena, Balkanetan sortu zen orobat, eta munduan zehar zabaldu. Vlax delakoaz ari gara.

Romani hizkuntzaren galera gero eta abiadura handiagoan gertatzen da. «Ijitoek euren hizkuntzaren erabilera galdu dute. Mailegatutako hizkuntzan hitz-jardunbidea da orain euren hizkuntzazko identitate-marka» (*ibid.*: 92). Ildikó Lőrincz-ek argitzen duenez, Hungarian vorba izeneko diskurtso «formal» batek osatzen du, besteak beste, romania; egoera formaletan erabiltzen da; bada, emakumeek ia ez dute harako sarbiderik. Eguneroko hizketari, bestalde, duma deritza. Vorba ipuinetarako, rebus poesiarako eta kantuetarako baliatzen da. «Hizkuntzaren erabilera bikoitz horretan ikus daiteke ijitoen komunitate tradizionala bideratzen duen purua-inpurua printzipioa» (Lőrincz, 2003: 135).

Ijitoen identitatea definitzen duten elementuetako bat da hizkuntza; komunitate, bizimolde eta leku geografiko bateko partaide izatearen neurri berean. Ekialdeko Pirinioetako ijitoen artean egindako ikerketak erakusten du hori, eta bidaiari bizi



direnen elebitasun edo eleaniztasunaren iraupena berresten da. Espainian dute jatorria ijito horiek, eta katalanez, espainolez eta frantsesez egiteaz gain, *kaló*-z ere ari dira (oinarrian katalana eta espainola dituen ijitoen dialekto espezifikoa). Hizkuntza hori «ahozkoa da funtsean, ez da “payoen kontua”» (Escudero, 2003: 54). «Payo» izenak taldetik kanpoko pertsonak izendatzen ditu. *Kalóa* da benetako ijitoa. Izan ere, «Kalózko mezua beste ijito bati edo komunitateari oso gertuko zaion pertsona bati baino ez zaio zuzentzen. Ijitoa izateak Gadjoarekin beste hizkuntza bat baliatzea esan gura du» (Escudero, 2003: 58). «Gadjo» kalifikatzailea erabiltzen da taldetik kanpoko izendatzeko. Gizaldietan zehar, genozidio linguistikotik oso gertuko legeek komunitate-hizkera hori ia desagertzera eramán dute, eta gaur egun oso egoera hauskorra bizi du, erabilera oso mugatua baitu. Hizkuntzaren etorkizuna erabat zalantzazkoa bada ere, *kaló* hizkuntzak identitate-markatzaile indartsua izaten jarraitzen du. Gauza bera gertatzen da ijitoen esamolde eta aforismo ugariekin, ipuin eta kondairekin. Haien arrastoari jarrai dakioke Geneuilen *La Symbolique gitane* (2007) liburuan. Egilea ijitoa da izatez, eta argira dakartza ijitoen unibertso giltzak: mitoak, zeinu gordeak, kondairak, bizitzeko artea eta espiritualitatea.

## 2. Ijitoei lotutako ikuskizun-arteak

Ijitoen identitatea hainbat arte-adierazpidetatik jalgitzen da: zirkoa, antzerki ibiltaria, musika, kantua eta dantza.

Izatez, zirkoa bidaia-jendeari lotzen zaio. Askotariko animaliak (hartzak, tximi-noak, ahuntzak...) hezten eta erakusten espezializatu dira batzuk. XII. mendean, hartzen erakustaldiak oso ezagun egin ziren Turkian; gerora, gauza bera gertatu zen Balkanetan.

Antzerki ibiltaria eta txotxongiloen antzerkia ere ijitoen adierazpideak dira, *ikuskitzen* alorrekoak. Alain Reyniersen arabera, 1950eko hamarkadaren hasieran ijitoz bakarrik osatutako antzerki-taldeak agertu ziren, eta *romani* hizkuntzan klasiko handiak eskaini zituzten: Romen antzerkia Moskun, Roma antzerkia Polonian, Mauricio Mayaren ijito antzerki-taldea Espainian eta abar (*ibid.*).

Mendeetan zehar musikaren unibertsoan murgildutako ijitoak musika-genero askotarikoekin lot daitezke; kasurako, Hungariako musikaren (edo kabaret-musika), Errusiako folklore-kantuaren, runbaren edo jazzaren mailakoekin. Europan egindako migrazioa dago haien musikaren dibertsifikazioaren oinarrian, baina berriki musika-tresnen mestizajea behatu dugu. Mendebaleko musika-tradiziotik datozen musika-tresnak, flauta eta biolina adibidez, jazz, rocka, blusa zein salsa bezalako musika-generoetan integratu dira (Thede, 1999). Denborak aurrera egin ahala, hainbat taldek erabat galdu dute musika-tradizioa. Beste batzuek, oster, ondo gorde dute, erabilera komertziala egiteraino. Espainiar jatorriko ijitoei dago-kienez, flamenkoaren tradizioa gordetzea lortu dute. Flamenkoaren bidez, euren arte-potentziala adierazten dute. Bestalde, erakargarri bihurtu dute finantzen ikuspegitik.

Flamenkoari *canto jondo* (kantu purua) ere esaten zaio, eta ijitoen adierazpide berezkoetako bat da. Ikertzaileak ez datoz bat gaiaren inguruan: ez behintzat kantu mota hori agertu zen uneari dagokionez. Hala, Alain Reyniers ikertzaileak,

esaterako, uste du XIX. mendean agertu zela Andaluzian, eta sortze-indarra bi tradiziotatik datorkiola: erbesteratuen min-kantuen tradiziotik eta musika-kultura hispaniko eta orientaletatik (Reyniers, 1998). Nancy Thede ikertzaileak, ostera, XVIII. mendean sortu zela dio (Thede, 1999). Baina sorrera-data ez da eztabaidaren gai bakarra. Andaluzian hain berezkoa den musika-korrontearen jatorriaz oraindik ere eztabaida dago, eta jatorria iluna da. Leblonen ustez, jatorri andaluziarra lukeen musika mota hori ijitoen iragazkiaren bidez garatu da, flamenko bihurtu artean. Leblonen iritziz, ijito andaluziarrek sortu dute. Beste batzuen ustez, jatorria edozein izanik ere, dagokigun kantamoldea andaluziar kulturaren parte da egun, eta Espainia hegoaldeko beste hainbat taldek ere bereganatu dute.

Flamenkoa hiru adierazpidek osatzen dute: kantuak, gitarrak —lantzean bandurriak—, eta dantzak. Gitarra eta dantza osagarri zaizkio kantu flamenkoari, azken hori jotzen baita arte nobletzat (Thede, 1999). Horri guztiari osotasuna ematen diote *palma* edo txalo-jotze erritmikoek (*ibid.*: 94) eta kaskaineta edo kriskitinek (*casta uelas*): egurrezko xafla txikiak dira, erpuruei lotu eta musikaren erritmoan klaskatzen direnak. Dantza, antzerki-errepresentazioak eta musika bezalaxe, *arte* eta *ikuskizunak* esparrukoa da, eta *taconéo* delakoak laguntzen du kasu honetan. Gizon eta emakumeak zapata takoidunekin dantzatzen dira, orpoak jotzeko teknika erritmiko jakin bati jarraika, taldekoen txaloen eta kriskitin-soinuen oihartzunarekin batera.

XIX. mendearen bukaeran agertutako *café-cantanteak* sortu aurretik, musika flamenkoa ijitoen komunitateen tradizioa zen (*ibid.*: 95). Har dezagun, esaterako, *Sacromonte*. Andaluzia beheko mendi sakratua da, «Espainiako ijitoen populazio dentsitate handiena duelako da berezi, bai eta flamenkorako herri-identifikazio bizia duelako ere (Giguères, 2009: 119). Berezko ijito-aurkintza da Sacromonte, Granada hiria baino gorago kokatutakoa. Ikuskizunerako atondutako hainbat *cueva* (kobazulo) zabal egokitu dira bertan: alde batetik, taberna dago, edari alkohol-dunen kontsumizioa baimenduta duena; beste alde batetik, *tablaos flamenco* edo oholtza dago, gizon-emakume ijitoek bertan dantzatzen, abesten eta gitarra jotzen dute gauaren zati batean, turistek eta hiriko gazte unibertsitarioek osatutako publikoaren aurrean. Ijitoek tradizioa eta errentagarritasuna bateratzen izandako arrakastaren adibide nabarmena dugu aurrekoa. Bada, hainbat artista ijito egin dira ezagun flamenkoaren alorrean: *La camboria* (Manuela Vargasen izen artistikoa), Paco de Lucia, *Manitas de Plata* (Ricardo Baliardoren izen artistikoa), Carmen Amaya, Lola Flores (zinemako artista bihurtua), Gipsy Kings eta beste asko.

### 3. Erritualak, jai-ospakizunak eta artisaugintza

Jaiotza-, ezkontza- edo heriotza-ohikuneen bitartez, *erritualak eta jai-ospakizunak* ere oso bizirik daude ijitoenean. Manifestaziook pribatuak dira askotan: ez daude eskuragarri ijitoak ez direnentzat.

Historian zehar, ugariak eta askotarikoak izan dira artisaugintza-jarduerak, baina horietako asko eta asko desagertu egin dira mundializazioaren eraginpean. Ijitoak euren musika-talentuari esker eta horren bidez ezagun badira ere, ez dira gutxiago bestelako esparruetan dituzten doteak; adibidez, artisaugintzaren esparruan dituztenak. Reyniersek aipatzen dituen adibideen artean nabarmentzekoa da, esaterako, Alemaniako Landau eskualdean kokatutako *Sintis* ijitoek egiten duten harrizko eskulturagintza; ijito horien lanbidea mahastietako sarreretako harrizko taila egitea da, edo industriako objektuak berreskuratzea. Azken hori eskultore ijitoen sormenaren argigarri da. Zilarra landuz egiten duten bitxigintza ere ezagun da ijitoenean. Esaterako, «Rosa Taïkon suediarrek filigrana teknika zaharrarekin egindako bitxiak munduan zehar aurki daitezke, askotariko kolekzio pribatuetan eta hainbat museotako kolekzioetan» (Reyniers, 1998: 104).

Egurrezko objektuen ekoizpena ere ijitoen artisaugintzaren parte da, eta oraindik ere garrantzi handikoa da Europa ekialdean (Liégeois, 1983 eta 2009). Ohituraz, egurra lantzea etxeko baserri-tresna eta tresna funtzionalak eraikitzeari lotuta dago. Hainbat artista hungariarrek, Jakab Orsós eta Vince Horváth artistek esaterako, ohiko praktikak perfektionatu egin dituzte (Reyniers, 1998). Alain Reyniersek gogorarazten digunez, Errumanian oso zabaldua dago, halaber, erlaitzgintza eta alanbikigintza.

Oro har hain ezaguna ez bada ere, ijitoek euren dohainak erakusteko darabilten beste unibertso artistiko bat ere badada: pinturaz ari gara. Askotarikoak dira espresionistak: oihala, beira edo harria margotzen dute. Pinturotan rol garrantzitsua dute emakumeak, egunerokotasunak, sufrimenduak eta askatasunak.

Gutxiengo ijitoen kulturaren sozihistoriaren bitartez inbentariatu ditugun aurreko elementuek argitzen dutenez, jakina da ijitoak ondare ez-material aberatsaz balia daitezkeela KOEMA gordetzeko 2003ko itunean jasotzen diren alorrei atxikitzeko. Turismoaren esparruko profesionali ijitoen inguruan egindako galdeketaren emaitzei buruzko informazioa dakar jarraian datorren taulak.

## B. Inkestaren emaitzak

### 1. taula. Ijitoak ez integratzearen arrazoiak.

ITEMA		Ados nago	Ez nago ados	Ez dakit
1	Ijitoak ez dira integratzen gainerakoek adierazten dituztelako.	% 100	% 0	% 0
2	Ijitoak ez dira integratzen gainerakoek noma-datzat dituztelako.	% 100	% 0	% 0
3	Ijitoak ez dira integratzen jendeak uste duelako gizartearen arauetatik kanpo bizi direla.	% 100	% 0	% 0
4	Ijitoak ez dira integratzen besteen ustez ez direlako lanbideak.	% 98,75	% 1,25	% 0
5	Ijitoak ez dira integratzen gainerakoek arrisku-tutzat dituztelako.	% 98,75	% 1,25	% 0
6	Ijitoak ez dira integratzen jendeak uste duelako euren komunitatean bizi direla.	% 97,5	% 2,5	% 0
7	Ijitoak ez dira integratzen gainerakoek gizartearen parasitotzat jotzen dituztelako.	% 96,25	% 3,75	% 2,5
8	Ijitoak ez dira integratzen jendeak uste duelako hezkuntza-maila baxua dutela.	% 91,25	% 2,5	% 6,25
9	Ijitoak ez dira integratzen besteen begietara baliabide ekonomikorik ez dutelako.	% 85	% 8,75	% 6,25

### 2. taula. Integrazioarako lorpenak.

ITEMA		Ados nago	Ez nago ados	Ez dakit
10	Ijitoak integra daitezke, jendeak uste duelako gaitasun artistikoak dituztela.	% 100	% 0	% 0
11	Ijitoak integra daitezke, jendeak uste duelako musikarako doteak dituztela.	% 100	% 0	% 0
12	Ijitoak integra daitezke, jendeak uste duelako eskulangintzarako doteak dituztela.	% 90	% 6,25	% 3,75
13	Ijitoak integra daitezke, sormen handikotzat jotzen direlako.	% 87,5	% 10	% 2,5
14	Ijitoak integra daitezke, jendeak uste duelako kultura aberatsekoak direla.	% 77,5	% 12,5	% 10
15	Ijitoak integra daitezke, jendeak uste duelako inteligentzia-doteak dituztela.	% 3,75	% 77,5	% 18,75

Lehenengo taulari begiratu gero, adostasun handia dago item gehienetan; adostasuna txikiagoa da 9. itemaren kasuan. Argi eta garbi baieztatu dezakegu jendeak oro har ijitoei buruz duen irudia bat datorrela memoria sozialean zabal dabilzan estereotipoekin. Jendeak honako ideia hauek partekatzen ditu: ijitoak adeigabeak dira (lapurrak), nomadak dira (nomada izatea joandako iraganarekin lotzen da), marjinalak dira, alferrak eta arriskutsuak, klanetan bizi dira, sistemaz aprobeztatzen dira, analfabetoak eta pobreak dira. Ikusten denez, oztopo eta estigma askotarikoen menpeko kategoria batean sailkatzen eta kokatzen dira. Emaitzak bat datoz botere publikoek ijitoak «sailkatzeko» darabiltzaten kategoriek. Azken finean, ezaugarri estereotipatu eta erabat negatiboen bidez ikusten ditugu ijitoak.

Bigarren taulako emaitzek, aldiz, KOEMarekin lotura zuzena duten lorpenei buruzko adostasuna erakusten dute. Berriro ere irakurketa estereotipatua dakusagu hemen; kasu honetan, positiboa. Bat datoz inkestatuak ijitoek arte-gaitasunak, musikarako dohaina eta eskulangintzarako eta sorkuntzarako doteak dituztela aitortzean zein kultura aberatsa dutela onartzean. Baina, intelektualki gabetasunak balituzte legez agertzen zaizkigu. Estigma horrek hortxe darrai. Kontuan hartu beharrekoa da gizarte-langileen artean inkesta bat egin genuela aurretik, gisa honetako jarreraren inguruko hainbat item jasotzen zituena, eta antzeko emaitzak jaso genituela (Mamontoff, 2010). Inkestatuak batzuk edo besteak izanik, estereotipoa konfirmaturik geratzen da.

Ijitoen lorpenei buruzko adostasuna ikusirik, bigarren inkesta bat egin dugu, ordezkapen-galdetegi bati jarraikiz. Ondokoa da helburua: etorkizuneko profesionalen iritzia jasotzea etnoturismoaren bideragarritasunaren inguruan. Badirudi bisitariak aldeko ustea agertzen dutela gutxiengo etniko gehienenean egonaldi originalak, aurkikuntzazkoak eta ingurune-aldaketazkoak egiteko. Hala ere, egonaldiok edo ijitoen komunitateetan egindako topaketek bisitari turistikoak erakarriko lituzketela ez da gauza segurua; izan ere, ijitoek estereotipaturik jarraitzen dute, estigmatizatutako kategoria batean. Arrazoi horiek direla-eta, ezinbestekoa iruditu zaigu turismoaren alorreko profesionaleri galdeketa egitea, euren iritzia zein den jakiteko.

### 3. taula. Sarrera-testua eta ordezkapen-galdetegiaren emaitzak.

«Turismo etnokulturala nahiko gutxi garaturik dago European. Kanadan, Australian eta Ipar Amerikan ari da batez ere garapen-bidean. Tokiko komunitateetan murgiltze-egonaldiak egitea ahalbidetzen du, komunitateetako bizimodua partekatzeke, komunitateen ohiturak, musika, gastronomia eta abar ezagutzeke. Ijitoen komunitateak kultura-ondare ez-material handiaren eroale dira. Turismoaren alorreko etorkizuneko profesionala izango zaren aldetik, uste duzu taula honetan proposatzen ditugun turismo-eskaintzek bisitariak erakar ditzaketela? Erantzun ahal bezain zintzoen».

ITEMA		BAI %	EZ %
1	Ikuskizunak: flamenkoa (kantua, dantza, gitarra), runba, salsa eta jazz manoutxea.	100	0
2	Ijitoen artea ezagutzeke bisitak: argazki-tailerrak, buztin-gintza, pintura, bitxigintza, txotxongilogintza.	82,5	17,5
3	Filmeen eta tokikoen berbaldien bidez tradizioak (sinistreak, kondairak, mitoak, magiaren artea, herri-medikuntza...) ezagutzeke bisitak.	77,5	22,5
4	Ijitoen komunitatean murgiltze-egun bat ospakizun handienetako batean: ezkontza (erritua, zeremonia, jantziak, otorduak, musika).	72,5	27,5
5	Tradiziozko sukaldaritzak eta ijitoen gastronomia bereizgarria ezagutarazteke bisita gidatuak ijitoen auzoetan.	68,75	31,25
6	Murgiltze-egonaldia (3 egun eta 2 gau) karabanan, Saintes Marie de la Mer-era erromesaldian, bizitzeko artea, ijitoen erromesaldiaren zentzua eta komunitate-bizimodua ezagutzeke aukera eskainiz.	56,25	43,75

Lehenbiziko itemean erabateko adostasuna dago (% 100). Gaueko emanaldiek (betiko musika eta dantza) bisitariak erakarri behar litzukete. 2. eta 3. itemek ere batasun handia adierazten dute (% 82,5 eta % 77,5): oso produktu salgarri gisa agertzen dira, beraz, ijitoen artea ezagutzeke bisitak eta filmen eta kontaketen bidez tradizioak ezagutzeke bisitak. 4. eta 5. itemak: batasun-tasa ahulagoa agertzen dute, osterak, ezkontza batean izateko egun bateko murgiltze-egonaldiak eta espezialitate kulinarioak ezagutzeke ijitoenera egindako bisitek (% 72,5 eta % 68,75). Hala ere, aukera salgarriak lirake. Azkenik, 6. itema: atxikimendu askoz ahulagoa agertzen dute erromesaldiak komunitatekin batera karabanan egiteko egonaldi luzeagoak (% 56,25). Emaitzak frogatu egiten dituzte estereotipo positiboak: hainbat arte-esparrutarako dohain berezia dute ijitoek. Lehenik, estereotipo zabalduenetako bat da ijito musikari gitarra-jotzaile eta kantariaren (batez ere flamenko-kantariaren) irudia. Era berean, arteari eta artisaugintzari lotutako alderdiari dagokionez (buztingintza, bitxigintza, etab.), bai eta komunitateen tradizioei (kondairak, mitoak, etab.) dagokienez ere, inkestak ustez bisitarien interesduntzat jotzen dituzte bete-betean, eta horrek egiaztatu egiten du beste behin ere ijito eskulangile dohaintsu eta originalaren irudi estereotipatu zabaldua. Ijitoen ezkontza tradizionalak (erritua, zeremonia, etab.) zein sukaldaritzak tradizionalak askoz ezezagunagoak dira Frantzian. Horrexek azalduko luke aukera horretan erantzunak

hain aldekoak izan ez izana. Azken postuan sailkatutako itemak, erromesaldia egiteko murgiltze-egonaldiak, ez dirudi oso salgarria turistentzat. Nabarmentzekoa da galdetegi itxian, aukera baztertzear, inkestatu gehienek gaitzespena honelaxe azaltzen dutela: «Bisitariak objektu pertsonalak galtzearen beldur izango dira, eta zalantzak dituzte higie-ne eta konfort egokia izango ote duten, «Jendea ez da oraindik behar beste desatxeki komunitateari buruz existitzen diren aurrejuz-guetatik», «Hiru egun karabanen luzeegia da. Erlijioa oso kontu pertsonala eta pribatua da turistei erakusteko eta turistentzat egokitzeko».

Horra hor, nahita edo nahigabe, ijito lapurraren, baliabide ekonomikorik gabearen eta beldur-eraginarazlearen estereotipoa. Batzuetan alderdi negatiboa ez dira askatasun osoz adierazten: hala, erlijioari loturik egoteagatik praktika oso intimoatzat dute zenbaitek; beraz, ez da horren erakustaldirik egin behar. Egonaldi-aukera horri dagokionez, emaitzek haxe agertzen dute aldi berean: onartzen dutenen artean jakin-min handia dago, eta gaitzesten dutenen artean beldur handia. Ikusi dugunez, ijitoen KOEMa aberatsa da, eta aldatu egiten da kontinenterik kontinente, eskualderik eskualde edo herrialderik herrialde. Hortaz, ez da soilik mugaz bestaldean dugun Espainiako ondarea soilik.

### **Ondorioak eta etorkizuneko aukerak**

Lan honetan ijitoen errepresentazio klasikoa baieztatu da, alderdi negatibo eta positiboetan. Katetoria diskriminatzaile batean iltzaturik jarraitzen dute unibertso kognitiboetan, nomada gisa, arauetatik kanpo, marjinatuta, adeigabe, arriskutsu eta baliabiderik gabe irudikatuta. Hala ere, KOEMari lotutako estereotipo positiboak erabiltzen direnez gero, turismoaren etorkizuneko profesionalek tokiko komu-nitateetara bideratutako etnoturismoaren ideia onartzen dutela atzeman daiteke.

Aurrekoak ikusita, uste dugu turismoaren garapenerako politika bektore bat izan daitekeela integrazio ekonomiko eta sozialerako, eta halaber, praktika tradizionalak praktikatzeko aukera galdu duten komunitateak birgaitzeko modua. Ondare ez-materiala gordetzea eta balioestea turismoaren industriaren lehenta-sunetako bat da gaur egun. Frantzia hegoaldeko testuinguruari begiraturaz gero, jarduteko moduari buruzko ikerketak abian dira, jakinik eremu horrek baduela berezitasun bat: Kataluniaren mugakide izatea. Turismoaren garapenerako politika bideratzeko beharrezkoa da ikertzaileen, turismo-eragileen eta mugaz bi aldeeta-rako tokiko agintarien arteko elkarrizketa. Zer baliabide, zer tresna eta zer proze-dura jar daitezke martxan ondasun ez-materiala ikusgai izan dadin? Nola garatu populazio hauen inguruko interes turistikoa, populazioa bera desnaturalizatu gabe eta irabazi ekonomikoak izan ditzaten?

Ez dezagun ahan-tzi ijitoek potentzial artistikoa dutela, eta, gehiago edo gutxia-go, historian zehar testuinguruaren arabera adierazi ahal izan dutela. Gaur gaur-koz, ondare ez-materiala ez da bera Kataluniako iparraldean edo hegoaldean, kasurako. Bidaia-jendearen balioztatze turistikoan, gure ustez, ezin daitezke alde batean laga mugaz haraindiko sareak. Komunitateen arteko solidaritate-loturak sortuko lirateke gisa horretan, eta ondareak elkarbanatuko lirateke, ibilbide turistiko zabalagoak eta aberatsagoak eskaintzeko. Aukera horrek mugikortasun handiagoa eskainiko lioke bisitariari, eta horrez gainera, tokikoentzako irabazi

ekonomikoak ekarriko lituzke. Gauzak horrela, turismoa ez litzateke ekonomia-motor soiltzat joko: giza integraziorako balioespen-tresna bihurtuko litzateke. Eta baliabiderik gabeko talde baztertuei identitatea eta baliabideak gordetzea, edota berraurkitzea, ahalbidetuko lieke. Mugaz haraindiko turismo-politika aplikatzeak lagundu egin behar lieke ijitoei leku bat eskaintzen, mugarik gabeko espazio europar berri honetan.

Europar oso gutxi garatu den turismo etnokulturalaren esparruan ari gara. Turismo mota hori tradizioak babesteko modu bat da, bai eta tokiko komunitate askotarikoak hurbiltzekoa ere. Haien historia, kultura-aberastasuna, ezagutaraztea ahalbidetzen du, bai eta erakustoki bat eskaintzea (balioak, artea, sukaldaritza, mitoak, kondairak, etab.) ere. Halaber, emantzipazio ekonomikorako bitarteko bat da. Ijitoen nortasun kulturala mugaz haraindiko esparruan sustatzeak berezko baliabideak sortzeko aukera ematen die nagusiki gizarte-laguntzei esker bizi diren populazioei. Arrakasta lortuko bada, beharrezko baldintza da, *sine qua non*, ijitoen aldetik borondate ona eta atxikimendua agertzea garapen turistikoaren prozesuarekiko. Gogora dezagun ijito gehienak barnera begira bizi direla: «Marginalizatutako gutxiengo etniko guztiak bezalaxe, barnera begira bizi dira, eta gehiengoarekiko loturak mugatu egiten dituzte ahal bezainbat» (San Roman, 1984: 18).

Turismo etnokulturalaren formak askotarikoak izan daitezke, ikusi dugun moduan: ibilbide gidatua, dantza, folklore eta musika tradizionala, egonaldiak komunitateetan Saintes-Marie-de-la-Mer-era erromesaldian, kondairak eta mitoak ezagutzea, gastronomia dastatzea, bizimodua ezagutzea (artisaugintza bezalako jarduera tradizionalak), sendabelarrak eta gaixotasunen zergatiak ezagutzea, herri-jakintza ezagutzea, ezkontzak bezalako ospakizunetan parte hartzea, ostatuak, garraioa, etab. Turismo autentikoa da, eta eragileak tokiko pertsonak dira. Kolektibitateen-gan gerta litezkeen eragin negatiboak murrizteko, lan garrantzitsua dago komuni-tateekin egiteko; hain zuzen ere, jakin egin behar da zein komunitate dagoen bisitariak hartzeko prest eta zer modutan interakzionatu nahi duen bisitariekin. Tokiko gidak dira solaskide aiposenak. Proiektu hau mugaz haraindiko ijito-populazioen behatokiaren esparruaren baitakoa da, guk geuk abiarazitakoa. Beha-tokiaren helburua da gogoetarako lanak sustatzea, bai eta muga franko-espainiarren bi aldeetara bizi diren ijitoen komunitateei buruzko ikerketak sustatzea ere, betiere integrazioa helburu izanda, nortasun-faktoreak eta populazioon lorpenak kontuan hartuta. Ikertzaileen, praktikarien eta eragile politikoen arteko elkarrizketa sortzea da auziaren funtsa, gutxiengo egoeran daudenen berezitasunak kontuan hartuta insertziorako baliabideen koherentziaz gogoeta egiteko.

## Bibliografia

- Blangy, S.; Mc Ginley, R. eta Harvay Lemelin, R. (2010): "Recherche action participative et collaborative autochtone: améliorer l'engagement communautaire dans les projets touristiques?", *Teoros*, 29-1, 2. txostena (<http://teoros.revues.org>.15/30. Kontsulta-data: 2013/05/14).
- Butler, R. eta Hinch, T. (zuz.) (2007): *Tourism and indigenous peoples: issues and implications*, Butter Worth Heinemann, Burlington.



- Descamps-Vila, L. *et al.* (2011): "Hacia la mejora de la creación de las rutas turísticas a partir de información semántica", Gironako Unibertsitatea, Girona.
- Di Méo, G. (2008): "Le patrimoine, un besoin social contemporain", *linean: halshs-00281467*, 1. bertsioa, maiatzaren 22a, 1-8.
- Escudéro, J. P. (2003): "Une société plurilingue", in B. Leblon, J. P. Salles eta J. P. Escudéro (zuz.), *Le Livre des Gitans de Perpignan*, L'Harmattan, Paris, 47-66.
- Fernberger, S. (1948): "Persistence of stereotypes concerning sex difference", *Journal of Abnormal and Social Psychology*, **43/1**, 97-101.
- Geneuil, G. P. (2007): *La Symbolique gitane*, Oxus, Paris.
- Giguere, H. (2006): "Vues anthropologiques sur le patrimoine culturel immatériel, un ancrage en basse Andalousie" in *Anthropologie et sociétés*, **30/2**, 107-127.
- Joliet, F. (2012): "Ceux qui regardent font le paysage. Les Inuits d'Umiujaq et le parc national Tursujuq (Nunavik)", *Téoros*, **1/31**, 49-60.
- Laborde, D. (1997): "L'identité peut-elle être l'objet d'une politique culturelle?", *Ezpala*, **6**, Donostia.
- Liégeois, J. P. (1983): *Tsiganes*, La Découverte/Maspero, Paris.
- , (2009): *Roms et Tsiganes*, la Découverte, Paris.
- Lörincz, I. (2003): "Aspects linguistiques et socioculturels de l'échec scolaire des enfants tsiganes en Hongrie", *La Linguistique*, **39/2**, 133-148.
- Mamontoff, A. M. (2010a): "L'impossible (?) défi de la valorisation touristique du patrimoine immatériel des minorités stigmatisées. L'exemple des tsiganes", *Espace tourisme et loisirs*, **280**, 34-43.
- , (2010b): "Le patrimoine culturel immatériel des tsiganes: quelle reconnaissance par l'UNESCO?", in G. Ferréol (zuz.), *Patrimoine et tourisme*, Intercommunications, Bruxelles, 87-109.
- , (2011): "Poblaciones sin frontera y valorización del patrimonio cultural intangible: El caso de los gitanos", *Teoría y praxis*, 157-169.
- Martin, Th. (2012): "Par-delà le tourisme Parc Nunavik: un outil pour inscrire la culture inuite dans le global", *Téoros*, **1/31**, 1-7.
- Origet du Cluzeau, Cl. (2004): "Tourisme prédateur. Tourisme salvateur", *Espaces, tourisme et loisirs*, **215**, 22-25.
- Reyniers, A. (1998): *Tsigane heureux si tu es libre*, Éditions, Paris, UNESCO.
- Rosch, E.: Mervis, C.; Gray, W.; Johnson, D. eta Boyes-Braem, P. (1976): "Basic objects as natural categories", *Cognitive Psychology*, **8/1**, **3**, 382-439.
- Sales-Willlemin, É. (2006): *La Catégorisation et les stéréotypes en psychologie sociale*, Dunod, Paris.
- San Roman, T. (1984): *Gitans de Madrid y Barcelona: Ensayos sobre aculturación y etnicidad*, Unibersidad Autonoma de Barcelona, Bartzelona.
- Tajfel, H. eta Wilkes, A. (1975): "Classification et jugements quantitatifs" in DOISE Wilem (zuz.), *Expériences entre groupe*, Mouton, Paris.
- Thède, N. (1999): *Gitans et Flamenco. Les rythmes de l'identité*, L'Harmattan, Paris.
- Alvarez Uria, F. (1997): "Si todo se convierte en mercancía, no hay espacio para las culturas", *Ezpala*, **6**, Donostia.
- Vinsonneau, G. (1999): *Inégalités sociales et procédés identitaires*, Armand Colin, Paris.
- , (2002): *L'Identité culturelle*, Armand Colin, Paris.
- Ward, D. eta Blaswick, J. (1978): "Strong men and virtuous women: a content analysis of sex role stereotypes", *Pacific sociological review*, **21/1**, 45-53.

